



BARREN

TOIKIKOM



Kulturarentzat aterpe berria





Ana Alberdi

Mendaro.
Ikus-entzunezko
Komunikazioa, 4. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · OTSAILAK 4

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · OTSAILAK 11

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · URTARRILAK 28

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · OTSAILAK 4

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · OTSAILAK 11

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA**

ESKORIATZA · OTSAILAK 4

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · OTSAILAK 4

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

DONOSTIA · OTSAILAK 9

OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!



NEREA GURRUTXAGA



“Hilekoa isilpean bizi behar dugun zerbait dela ikasi dugu; gauza zikina eta arrotza dela”

Kaixo, Nora! Aste honetan hilekoa etorri zait. Hitz horiek irakurtzean baten batek pentsatuko du: eta nori axola zaio? Izan ere, gezurra dirudi populazioaren erdiak hilerro jasaten dugun prozesu bat denik, ezta? Isilpean bizi behar dugun zerbait dela ikasi dugu; gauza zikina eta arrotza dela. Ezagutzen dut lehenengo aldiz etorri zitzaionean, kuleroak zakarrontzira bota zuenik, gurasoei ez kontatzearren. Telebistako iragarkiek ere hori azaltzen dute: usain oro desagertzeko balio duten konpresak edo minigonak lasai jantzi eta “bollywood”-eko dantzak egin ahal izateko tanpoi erosoak, likido urdin bat xurgatzen dutenak (agian baten bat beldurtu egingo delako, odola gorria dela jakitean). Iragarki horietan emakumeak ez dira tripako minez agertzen, pijaman eta boltsa beroa tripan dutela. Behin baino gehiagotan joan nintzen ikastolatik etxera, gaizki sentitzen nintzela esanda. Ingurukoekin edo lankideekin hitz egiterakoan ere, zenbatek onartzen dugu hilekoagatik gaudela gaizki? Errazagoa da burukomina dugula esatea, eta aurrekoaren erreakzio

deserosoa saihestea. Tabu horren aurrean, gezurra dirudien arren, elementu iraultzailea bihurtu da hilekoa.

Rupi Kaur poeta pakistandarrak *Period* izeneko argazki sorta bat argitaratu zuen Instagram sare sozialean, eta horietako bat (bera ohean etzanda eta praketan odol orban bat duela erakusten duena) ezabatu egin zuten Instagrameko kudeatzaileek. Sortu zuen eztabaida dela-eta, sare sozialak atzera egin zuen eta akats bat izan zela aitortu. Odol orban hori gorputzeko beste atal batean egonez gero ezabatuko al zuten argazkia, Nora? Ziurrenik, ez. Horrek guztiak, zoritxarrez, emakumeoi bakarrik egiten digu kalte. Izan ere, hilekoa isilpean eraman beharreko arazo bezala planteatzen den momentutik, emakumeok ez dugu ikasten gure gorputzarekin harreman osasuntsu bat izaten. Horrela, prozesu natural eta beharrezko gisa ikusi beharrean, “higiene krisi” baten irudia besterik ez zaiola ematen iruditzen zait, produktu zehatz batzuren kontsumoa bultzatuz eta beste metodo batzuk ezkutatuz, esaterako. Zuk zer uste duzu honen inguruan, Nora?



NORA KORTABERRIA



“Bat nator zurekin. Horren oinarrizkoa zaigun zerbait horren arrotz izatea ez da justua”

Kaixo, Nerea! Zuri etorri eta niri joan. Erreleboa hartu didazu. Kontu interesgarria da, bai, hilekoarena, eta gutxitan entzuten den horietakoa gainera. Guztiz bat nator zurekin, horren oinarrizkoa zaigun zerbait horren arrotz izatea ez baita justua. Telebistak erakusten digun likido urdin hori erreala dela sinetsi behar al dugu? Edo betiko tanpoi edo konpresatik at ez dagoela beste metodorik? Nik kopa menstrualak erabiltzen dut orain, eta benetan gomendatzen dizut, Nerea. Zikina dela pentsatu dezakete batzuek, baina egia esanda ez dago tanpoi edo konpresak baino metodo antihigienikoagorik.


Gai honekin burura etorri zait *Ezagutzen zaitut* kanta. Koadrilakoa dudan Maddi Mendibilek beste lagun batzuekin batera egindakoa da, eta entzun nuen lehenengo unetik deitu zidan atentzioa. Gure gorputza ezagutzen dugula pentsatu dezakegu, bai, baina ezagutzen al dugu benetan? Hilekoari eskainitako kanta da eta egia esanda, letrako esaldi bakoi-

tzarekin sentitu naiz identifikatuta. “Gorputz ezjakin honekin abenturan...”, dio momentu batean. Emakumeon umorea horrelakoa dela esan ohi da, abentura bat bezalakoa, une batetik bestera poz-pozik egotetik negarrez amaitu dezakegulako. Dena dela, orain arte jakin ez dudan arren, hilekoaren zikloan fase ezberdinak bereizten dira. Nerea Ibarzabalek zioen Ahoz Aho saioan, lau urtaroeekin konparatu ditzakegula. Oraintxe zu neguan egongo zara, deskantsurako unean, eta gorputzak beste erritmo bat eskatuko dizu, nahiz eta gizarteak egokitzen utziko ez dizun. Ni neu udaberrian nago. Dinamiko, aktibo, kirolari... sentitzen garela aipatzen zuen Nereak. Dena dela, oraindik gorputza neguan dudala iruditzen zait, aktibotasun horren falta izango banu bezala. Esan behar dut bai, eguraldiak dezente eragiten didala, eta agian arazoia hori izan daiteke. Eguraldia... Kar, kar! Betiko aitzakia!

Harri eta Irri 

HARRI & IRRI

errautsak borbor, ondo legoke hor.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euzkadi Legebaitan Espangurua

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoek Beleari eta eskutitzak ataletan adieraz-itzakoan erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabala, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen An-sola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazal-degi, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ **ERRAUSTEGIRIK EZ INONI!**

"Errausketarik ez Txingudin, ez Zubietan" lemapean, datorren otsailaren 4an Gipuzkoako erraustegiaren aurka manifestazioan protesta egiteko deia zabaldu du Errausketaren Aurkako Mugimenduak. Hondarribian izango da, 12:30ean, Burton pasealekutatik abiatuta. Erraustegiaren aurkako taldeak indar handia eduki zuen duela justu hamar urte Irun eta Hondarribia aldean, Txingudin zegoelako aurreikusia Gipuzkoako bigarren labe bat eraikitzea. OEITek (Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko mediku eta erizainen mugimenduak) gogor lan egin zuen bertan. Azkenean Txingudiko erraustegia ber-

tan behera geratu zen, EAeko Auzitegi Nagusiaren kontrako ebazpen eta guzti, baina Txingudi Bizirik plataformako arduradunen iritzian nagusiki herritarrek egingo dako protestari esker. Gipuzkoako zenbait agintari politiko erraustegiarekin tematuta jarraitzen dute, eta oraingoan, Zubietan eraki nahi dute. Elgoibar Zubietatik urrun dago, baina erraustegia egiten badute, bertako tximiniatik aterako diren ke kutsakorrak (dioxinak, furanoak,...) herrira iritsiko direla ziur egon. Berriz ere kalera atera behar gara, herritarrek badugu zer esateko, guztion osasuna jokoan baitago.

A.I.Z.

MGS

Aseguruak

Kalikatatea eta Zerbitzuan Finkatua
ZU ETA ZURE FAMILIAREN LASAITASUNERAKO ASEGURUAK

GAIZKA CASAREJOS CRUZ

Jausoro plaza 1 · 20870 Elgoibar

T/ 943 742 699

gaizkacasarejosacruz@mgs.es

Aseguru Agente eskusiboak CO7944173474L

ASEGURU MOTA GUZTIAK

- Auto aseguruak
- Etxe aseguruak
- Istripu aseguruak
- Gaixotasun aseguruak
- Aurretze eta jubilazio planak
- Bizitza aseguruak
- Diru inbertsioak
- * Inverseguro (kapital ziurtatuarekin)
- * PPA desgrabatzeko eta kapital ziurtatua



Aurten 110 urte beteko ditu konpainiak,
Elgoibar-Mendaron jada 70 urtez
aseguru zerbitzuak eskainiz

MGS
Aseguruak



IOSUNE SAEZ DE VITERI AGIRRE

izan da aurtengo bezeroen artean
zozketatu den tabletaren irabazlea.

www.mgs.es

Maiatzaren 7an 46.500 herritarri hitza emango die Gure Esku Dagok Debabarrenean



Iztia, Mutriku, Deba, Elgoibar, Soraluez eta Eibarko Gure Esku Dago taldeetako kideek prentsurrekoa eskaini zuten zapatuan Eibarren, eta galdeketa egiteko eguna zehaztu zuten bertan: 2017ko maiatzaren 7a. Egun horretan 16 urtez gorako 46.500 herritarri emango diete hitza.

2016ko ekainean landutako herri adierazpenetatik abiatuta, herri galdeketa olatu igo dira Debabarrenako ia herri guztiak

eta erabakitzeke eskubidearen ilusioa eta gogoia zabaltzera doazela jakinarazi dute. Herri galdeketa prozesua antolatzeak lana eta konpromisoa ere eskatzen dituela nabarmendu zuten prentsurrekoan eta galdeketa egunera eramango dituen bidea ere marraztu zuten. Aipatu zuten Debabarrenan gutxienez 4.400 sinadura behar dituztela galdeketa egin ahal izateko, eta sinadura kanpainan parte hartzera deitu zuten.

Bakea eta bizikidetzak jardunaldiak egingo dituzte otsailaren 1ean eta 8an



Bakea eta bizikidetzaren inguruko jardunaldiak egingo dituzte otsailaren 1ean eta 8an, *Memoria partekatzen, Bizikidetzak berria lantzen* lelopean.

Otsailaren 1ean, *Memoria partekatzen* izeneko solasaldia egingo dute. Bertan hiru gonbidatuek euren bizipenak konpartituko dituzte euskal gizartearen gertatutakoren inguruan. Gonbidatuak hauek dira: Jon Sarasua (bertsolaria eta unibertsitateko irakaslea); Mireia Uranga (irakaslea eta bizikidetzak hezitzailea) eta Joxe Arregi (Deustuko Iraskalea eta teologia gaietan aditua). Otsailaren 8rako, bestalde, kazetariak osaturiko mahai ingurua antolatu dute *Bizikidetzak berriaren erronkak* izenburupean. Gorka Landaburu, Jurdan Arretxe eta Martin Garitano izango dira gonbidatuak. Bi saioak musika eskolan egingo dituzte, 19:00etatik aurrera.

'Juan Mugertza krosa Instagram' lehiaketa antolatu du Gaztelekuak

Juan Mugertza Nazioarteko Krosa Instagram lehiaketa antolatu du Elgoibarko Gaztelekuak, 1999 eta 2004. urteen artean jaiotako nerabeentzako.

Parte hartzeko, joan zen domekan Mintxetan jokatu zen Juan Mugertza nazioarteko kroseko argazkiak Instagram sare sozialera igo behar dira lehenik. Instagramen bertan Elgoibarko Gaztelekuaren jarraitzaile egin behar da, eta ezinbestekoa da argazkietan Gazteleku etiketatzea.

Antolatzaileek bi sari banatuko dituzte: Alde batetik, sari orokorra, 150 eurokoa, eta, beste alde batetik, publikoaren saria, 100 eurokoa. Publikoaren sarirako botoak Gaztelekuan bertan egingo duten argazki erakusketan eman ahal izango dira. Lehiaketa parte hartzeko epea urtarrilaren 29an bukatuko da.

Kiva proiektuan sartu da Elgoibar Ikastola, eskola jazarpena amaitzeko helburua duen egitasmoan


Escola jazarpena amaitzea helburu duen Kiva programa jarri du martxan Ikastolen Elkartek 52 ikastetxetan, eta 18.000 ikaslerekin landuko dute egitasmoa. Elgoibar Ikastola horietako bat da. Joan zen barixakuan Kiva eguna ospatu zuten ikastetxean bertan, eta besteak beste, Kiva hitza irudikatu zuten umeekin Ikastolako pistan, eta jazarpenaren kontrako muralak margotu zituzten. Ikasleez gain, irakasle eta gurasoekin ere egingo dute lanketa, eta dagoeneko egin dituzte guraso formazioak.

Finlandiako Turkuo Unibertsitatean garatutako proiektua da, bertako Hezkuntza Sailaren eta Kultura Ministerioa-



ren laguntzaz. Kivak bi eremu desberdinetan egiten du lan: prebentzioan eta es-

kuhartzean. Programa honek prebentzioa funtsezkoa dela ulertzen du, baina ez du ahazten jazarpen kasuei ere aurre egin behar zaiela. Horretarako, Kiva programak erantzun "eraginkor, azkar eta sistematiko bat" errazten duten baliabideak eskaintzen ditu. Euskal Herriko hainbat irakasle Finlandian izan ziren hango eredu bertatik bertara ezagutzeko, eta horietako bat da Jon Vazquez Elgoibar Ikastolako orientazio departamentuko kidea. Aurrerantzean geletan ikasleekin, irakasleekin, gurasoekin eta oro har, ikastetxeko langile guztiekin egingo dute lanketa.



Juan Mugertza kaleko irisgarritasuna hobetzeko hainbat lan egiteko asmoa du Elgoibarko Udalak



Juan Mugertza kaleko bizilagunek jasaten dituzten hezetasan eta iragazketa arazoei irtenbidea emateko eta kale horretako irisgarritasuna hobetzeko, 230.000 euroko inbertsioa proposatu du Udalak. Kale horretan aurrez ere hobetze lan ugari egin dituzten arren, onartu du ez dituztela arazoak "errotik" konpondu, eta kale guztiari eragingo dion irtenbide integrala proposatu dute oraingoan. Besteak beste, kaleko bi espaloiak kentzea eta ur zikinen sarea hobetzea aurreikusten dute. Oro har, Mugertza kalearen antolakuntza berritu nahi dute, ibilgailuen zirkulazioari garrantzia kenduz, eta oinezkoen lehentasuna emanez. Zorua kontserbazio onaren ardura ere bere gain hartuko du Udalak. Egitasmoa bizilagunei aurkeztuko diete.

Aita Agirre kulturgunea



Andrea Arriola Kultura zinegotzia,
Ane Beitia alkatea eta
Josu Arraiz Hirigintza zinegotzia.

“Jende mugimendu handia sortzen duten elkarte eta zerbitzuak batuko ditugu Aita Agirren”

► **JOSU ARRAIZ** HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

Aita Agirre berri eta kulturgunea modernoa izateko egokituko dute. 1925. urtean eraiki zuten Aita Agirre eraikina. Hasiera batean, Elgoibarko Arte eta Ofizioen eskola izan zen, eta batera edo bestera, urteetan izan da hezkuntzari lotutako eraikina. 1980an eskolatzat erabiltzeari laga zitzaion, baina, eta ordutik hainbat elkarte izan dute egoitza han: AEK euskaltegiak, pintura tailerrak, zeramika eskolak, Gurutze Gorriak eta irabazi asmorik gabeko beste elkarte batzuk. Orain, etapa berria hasiko du. Ondo bidean, 2019ko otsailerako zabalduko dute berriro Elgoibarko kulturgunea nagusia izango dena.

- AINARA ARGOTIA -

◆ **Noiz eta zergatik erabaki zenuten Aita Agirre eraikina herriko kultur jarduera ezberdinetarako egokitzea?**

Aita Agirre ez zegoen batere egoera onean, eta halakoetan gertatu ohi denez, arazoak pilatzen ari ziren; irtenbide bat eman behar zitzaion hari. Atxutxiamaiak eta Egur arte tailerren lokaletako teilatuak, adibidez, oso egoera txarrean zeuden, jausteko arriskua handia zen, eta txirindularien lokala ere apuntalata geneukan. Hainbat elkarte zituztenez bertan lokalak parte-hartze prozesu bat abiatu genuen 2014an, eta proiektuari serio heltzea erabaki genuenean, 2016an, ordura arte Aita Agirren zeudenekin eta herriko gainerrako elkarteekin batzen hasi ginen, izan kultur elkarte nahiz ez, zeresana denek izango zutelakoan. 2014ko hasierako planteamendu hartan azalera erreala

baino metro koadro gehiagoko azalera edukiko genuela uste genuen, eta horren araberrako planteamendua egin genuen. Pentsatzen genuen sotoa izan ahalko genuela eta han elkarte gehiagorentzako lekua egin ahal izango genuela, baina aztertzen hasi ginenean, konponbiderik ez zuten arazo teknikoak eta zailtasun ekonomikoak agertu ziren, eta horrek behartu gintuen 2014ko planteamendua moldatzera, azalera txikiagora ekartzea. Adibidez, hasi ginenean, Aita Agirreko sotoan ikusten genituen Elgojaitza Belestak, baina orain, Pedro Mugurutzako eskolera eramango ditugu, ikusi delako sotoa ez dela egingarri.

◆ **Zein azalera erabilgarri izango du Aita Agirrek?**

1.911,16 metro koadrokoa. Beheko solairuak 596,17 metro koadro izango

ditu; lehen solairuak 311,90 metro koadro; bigarren solairuak 487,32, eta hiru garrenak, teilatupekoak, 400,52.

◆ **Kultur jarduera asko batuko dira Aita Agirre berrian, baina ez da diren elkarte guztientzako lekurik izango. Zein irizpide erabili duzue zein non kokatu erabakitzeko?**

la lau milioi euroko inbertsioa suposatzen zuen obra honek eta garbi geneukan Aita Agirrek ezin zuela izan huts-hutsean elkarte bulegoak kokatzeko eraikin bat. Eraikin hori esplotatu nahi genuen: bizia eman, kultur eskaintzaren parte handi bat han batu eta eraikinaren erabilera sustatu. Horregatik, jende-mugimendu handia sortzen duten elkarteak eta zerbitzuak batuko ditugu Aita Agirren. Hala ere, erabilera anitzeko gelak ere izango dira, eta gainerako elkarteek ere erabili ahal izango

Non zer

dituzte, jakina.

Lehenengo eta behin, Elgoibarren geneuzkan eraikinak aztertu genituen mapa gainean, eta elkarteek zituzten beharrak aztertu genituen gero. Hala, hasiera batean Aita Agirren kokatzen genituen zenbait elkarte baina arazo teknikoengatik han lekurik gabe gelditu ziren zenbait Kultur Etxean kokatu ditugu. Zein izan den irizpidea? Kultur Etxea elkarte txikiagoentzako egokituko dugu, jende-mugimendu txikiagoa sortzen dutenentzako eta euren urteko eskaintza lehendik ere Kultur Etxera lotzen zutenentzako. Hori izango da Kultur Etxearen esentzia: formato txikiagoko hitzaldi eta erakusketak... Kultur Etxean biziko direnek, bai toki propioa izango dutenek eta bai bulego konpartituak izango dituztenek, erabilera bat emango diote eraikinari eta egiten dutena eta sortzen dutena bertan geldituko da.

◆ **Eta Pedro Mugurutzako eskoletan zeintzuk batuko dira, eta zergatik han?**

Bolumen handia edo material asko erabiltzen duten elkarteak; lanerako espazio zabalagoa behar dutenak: Egur, Eskuz, Taupada, Belenistak.. eta behin behinean, Gurutze Gorrikoak ere bai.

◆ **Liburutegia eta Debabe Udal Euskaltegia ere Aita Agirrera pasatuko dira. Zer gertatuko da hutsik geldituko diren espazio horiek?**

Gaur liburutegia dagoen espazio horretarako ez daukagu ezer asignatuta oraingoz, eta Debabe udal euskaltegia eta zuek zaudeten lokal hori hutsik geldituko dira, Merkatu Plaza eta inguru hori ordenamendutik kanpo daudelako. Hau da, Plan Orokorrean jasota dago inguru hori San Frantzisko kaleko etxebizitzaren segida izango dela. Beraz, ez dauka zentzurik orain hor elkarte bat sartzeak.

◆ **Webgune bat sortu duzue proiektua aurkezteko, baina zein fasetan gaude orain? Guztiz itxia dago proiektua?**

Balorazioak jasotzeko epearen barruan gaude orain. Eraikina definituta dago, ejekuzio proiektua idatzita dago eta onartuta ere bai, eta beraz, falta dena da plenoak proiektua onartzea, eta obra-

ren lizitazioa hastea.

Osteguneko –atzo– osoko bilkuran onartuko da proiektua. Berez, tramite hutsa izango dela uste dut, ahobatez onartua dagoelako. Orain herritarren eta eragileen iritziaik batu nahi ditugu, exekuzio proiektua idatzita egon arren, edo are, eraikitzen hasita balego ere, oraindik badagoelako barruko banaketan aldaketa batzuk egiteko aukera. Beraz, ostegunean pliegoak onartu eta publiko egingo dira, eta obraren lizitazio epea hasiko dugu. Gero, 26 bat eguneko epea izango dute enpresek eskaintzak aurkezteko, eta aurkezten direnen arteak osoko bilkurak onartuko du obra zeini eman. Ondo bidean, ekaineko osoko bilkuran esleitu da obra zeini eman, eta obrako planningean jasotakoaren arabera, enpresa horrek 18 bat hilabeteko epea izango du lanak bukatzeko. Beraz, gure asmoa da obrak aurten hasi eta beranduenez 2019ko otsailaren azkenerako bukatuta egotea.

◆ **Zuk zeuk esan duzu eraikin historikoa dela Aita Agirre, enblematikoa. Mantenduko du bere esentzia?**

Babestu beharreko eraikinetakoa bat da Aita Agirre Plan Orokorreko katalogoan eta hortik abiatuta egingo da obra. Beraz, fatxada eta bolumena bere horretan mantenduko dira eta barrua eraldatuko da, arkitektura garaikidearen bidez. Leihoak zerbait ukituko dira, baina ezer gutxi. Aurrealdeko estetika hori bere horretan mantenduko da beraz, eta gero, atzeko aldera, eranskin bat sortuko da. Estruktura metaliko bat izango da, larrialdietako eskilara sartu ahal izateko ezinbestekoa. Estruktura tubular bat izango da, metalikoa; aurreko aldea baino modernagoa izango da beraz atzeko aldea. Instalazio batzuk, eskailera multzoa eta terraza hor eraikiko dira.

◆ **Zein aurrekontu izango du Aita Agirre?**

3,5 milioi euro ingurukoa, BEZ gabe.

◆ **Aita Agirreko obrek nola eragingo**

Kultur Etxea

- ◆ Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarte
- ◆ Haizea emakume taldea
- ◆ Guraso elkarteak
- ◆ Ongarri zine eta argazki taldeak
- ◆ Txistulariak
- ◆ Sinuose

Aita Agirre

- ◆ Elgoibarko Izarra (Atxutxiamaika + Barren)
- ◆ Debabe Udal Euskaltegia
- ◆ Elgoibarko Udaleko Gazteria eta Euskara departamentuak eta Kultura Saila
- ◆ Liburutegia
- ◆ Kz gunea
- ◆ Elgoibarko Udal Musika Banda eta Mautitxa txaranga

Pedro Mugurutzako eskolak

- ◆ Egur arte tailerra
- ◆ Eskuz
- ◆ Taupada
- ◆ Gurutze Gorria (behin-behinean)
- ◆ Elgojaitza belenistak


- ◆ AEK: Gabriel Krutzelaegin, gaur egungo lokalean.
- ◆ Dultzaineroak: Musika Eskolan

diote inguruari? Zer gertatuko da, adibidez, Aita Agirreko aparlekuarekin?

Obrak iraun bitartean ez dugu aurreikusten aparkaleku guztiak galduko direnik, eta ezta gero ere, nahiz eta infografietako batean aurrealde hori dena parke bezala ageri den. Gaur aparkaleku dena eta Aita Agirre eraikinari pegatutako beste eraikin buelta hori –Artekale eta inguru hori– birmoldatzeko beste proiektu bat egitea aurreikusten dugu. Hori bai, Aita Agirre eraikinaren aurrealdeari bai emango diogula oxigeno gehiago. Hala ere, esandakoa: dena ez da parkea izango. Atari alde hori zabalduko dugu, baina ez dira aparkaleku guztiak kenduko.

Aita Agirre proiektua aurkezteko webgune bat sortu du Elgoibarko Udalak: www.aitaagirre.net. Eraikinaren inguruko jakingarri nagusiak, planoak eta hainbat infografia batu dituzte hor, eta horietako nagusiak dira hona ekarri ditugunak. Josu Arraiz Elgoibarko Udaleko Hirigintza zinegotziak berak eman dizkigu solairuz solairuko azalpenak. 1925. urtean eraiki zuten Aita Agirre eta Elgoibarko Udala du jabea.

Beheko solairua



Eraikinak bi alderdi ditu, eraikin historikoa, batetik, eta atzeko eranskina, bestetik, eta bi espazio horiek ondo bereiztuko dira. Eraikinak bost sarrera mantenduko ditu aurreko aldera, eta horietatik, hegalenera dauden biak, independenteak izango dira. Batetik, ezkerrenera dagoen sarreratik, Udal Musika Bandaren eta Mauxitxa txarangaren lokala izango dena sartuko da, eta bestetik, eskuin alderen dagoenetik, Kafe antzokia taberna-kafetegira sartuko da.


Beraz, erdiko hiru ateak izango dira eraikin nagusira sartzeko balioko dutenak.

Sartu eta bat, harmailadun atondo bat- itxaron-gunea izango da, beheko solairua lehenengo solairuarekin lotuko dute harmailek- eta erabilera anitzera bi areto egongo dira. Printzipioz bi areto independente izango dira, baina aurreikusita behar ezberdinak sortu daitezkeela, behe alde hori nahierara banatzeko aukera izango da. Jo dezagun, adibidez, kafe antzokian egitekoa den kontzertu edo emanaldi baterako espazio zabalagoa behar dela. Bada, kontuan izanda halakoak eraikina itxita dagoenean egingo direla aukera egongo da beheko alde guzti hori gune zabal bihurtzeko, espazioa irabazteko. Hala, kafe antzokiak hartu ahal izango du erabilera anitzeko areto bat, areto hori eta atondoa, edo beheko alde oso-oso.

Hori guztia eraikin historikoaren oinplano horretan kokatuko da. Aitzeko eranskinan, berriz, Udal Musika Bandaren eta txarangaren artxiboak, komunak, sukaldea eta tabernaren biltegia kokatuko dituzte.



Lehen solairua




Lehenengo solairuaren bereizgarri nagusia eraikinaren atzeko aldera eraikiko duten terraza/lorategia izango da. Gaur egun erabilgarri ez dagoen espazio horri erabilera bat emango zaio hala. Terrazara lehenengo solairutik bertatik sartu ahalko da edota igogailua hartuta, geldituko delako terrazan ere.

Lehenengo solairu honetan Elgoibarko Udalaren Gazteria eta Euskara departamentuen eta Kultura Sailaren bulegoak jarango dira [gaur Kultur Etxean daudenak], eta baita erabilera anitzeko areto nagusi bat —100 bat lagunentzako lekua izango duena— eta bilera gela bat ere. Erdi-erdian, berriz, eta beheko solairuarekin lotzeko, harmailak eraikiko dituzte. Harmaila horiek funtzio ezberdinak beteko dituzte: balioko dute bertan jarri eta zain egoteko, atondo edo sarreran egingo diren




emanaldietan eserlekutzat erabiltzeko... “Ikusi da ondoko herrietan ere harmailen formato horrek aukera handiak eskaintzen dituela. Aita Agirre eraikina zabalik dagoen ordutegietan egingo diren saioetan, gainera, horrek aukera emango digu publiko horrek goiko solairuetan lanean ari direnei trabarik ez egiteko, jendearen atzera-aurrerak saihestiko ditugulako”.

Bigarren solairua



Bigarren solairua liburutegiak hartuko du ia oso-osoan. Eraikineko espazio nagusienetakoa izango da beraz liburutegia. Gune honek altuera bikoitza izango du, teilatupearekin lotuko da, eta bi altuerak bistara egongo dira, kristalez berezita. Aipagarria da liburutegiak umeentzako gune bat izango duela kontrol gunearen ondoan, aparteko gune bat, eta hiru gela osagarri edo lan-gela ere izango dituela, taldeko lanetarako, bilerak egiteko eta abar (Aita Agirren nahiz herriko gainerako kultur guneetan dauden elkarteek ere erabili ahal izango dituzte lan-gela hauek, bilerak edo formato txikiko ekintzak egiteko). Era berean, ikasketa gela berezi bat ere izango du, KZ gunearen parez pare. Solairu honetan izango ditu, gainera, udal liburutegiak artxiiboak, liburu eta dokumentuak ahalik eta eskuren izateko. KZ gunea gune independente bat izango da, eta ordenagailu-gela eta kontsulta gunea izango ditu.

Hirugarren solairua



Teilatupea Debabe Udal Euskaltegiarentzako eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunearentzako egokituko dute. Udal Euskaltegiak hartuko du azalera handiena. Lau ikasketa-gela, irakasle gela, artxiboa eta administrazio bulegoa izango ditu, sartu eta ezkerretara, eta eskubitara, kokatuko da Elgoibarko Izarraren bulegoa. Bertan batuko dira gaur lokal ezberdinetan dauden Elgoibarko Izarrako proiektuak: Atxutxiamaiaka aisialdi elkarteak eta Barren Komunikazio Saila. Hala, arretarako eta lanerako guneak izango ditu espazio horrek. Horrez gain, bi biltegi ere eraikiko dituzte teilatupeko solairu honetan.



elgoibarko herri eskola

MATRIKULAZIO EPEA: URTARRILAREN 30 ETIK - OTSAILAREN 10 ERA.
ATE IREKI EGUNA: OTSAILAK 4

JARDUNEAN IKASIZ





Joseba Juaristi eta Asier Gurrutxaga, iloba-osabak, kanpamentuetan etxean hartu dituen familiako bi umerekin, Ero eta Iñiarekin.

Sahararren elkartasunerako deia

Gerran zaildutako herria da Sahara. 41 urte joan dira Marokok okupatu zuenetik, eta ordutik, bitan zatitutako herria da; esperantzara kondenatua. Saharar batzuk Mendebaldeko Saharan bizi dira, Marokoren menpe, eta besteak, okupazio hartatik ihes egitea lortu eta Aljeriako basarmortuan (Tindouf eskualdean) babestu zirenak, hantxe jarraitzen dute, basarmortuan eraikitako errefuxiatuentzako kanpamentuetan, noiz autodeterminazio eskubidea onartu eta euren lurraldera itzultzeko aukera izan zain. Haientzat guztientzat nazioartearen laguntza ezinbestekoa da, gabezia handia baita. Ondotxo daki hori Asier Gurrutxagak, Eibar-Sahara elkarteko boluntario elgoibartarrak. Aljeriako kanpamentuetatik itzuli berri da Joseba Juaristi ilobarekin [Saharautz Elkartasun Taldeko kide da Juaristi], eta *Euskal karabana*, *Piztu itxaropena* elkartasun kanpainako lanekin burubelarri ari da egunotan. Sahararen aldeko euskal karabana egitasmoaren barruan, janari eta konpresa bilketa hasi du Eibar-Sahara elkarteak Elgoibarren (Eroski bietan eta BM supermerkatuan) eta Mendaron ere (Coviran eta Puxika dendetan) eta kanpainaren eta saharar errefuxiatuen kanpamentuetan ikusitakoaren berri eman digu Gurrutxagak.

- AINARA ARGOITIA -

Sahararren bizi-nahiak eta haien erakutsitako duintasunak beti deitu izan diote arreta Asier Gurrutxagari. Emandakoarekin bizi dira sahararrak; oinarri-oinarritzkoa falta dute, baina duintasun handiarekin eusten diote euren borrokari, “umorerik eta bizitzeko gogorik galdu gabe”, ondo antolatuta. Hiru osteria egin ditu Tindoufera, errefuxiantuentzako kanpalekura, eta sumatu du Mendebaldeko Saharara itzultzea desio dutela denek, zaharretatik hasi eta gazteetaraino, eta konbentziturak daudela, gainera, noizbait lortuko dutela. Ez daudela amore emateko alegia. “Fronte Polisarioak gerrara deituko balu, armak hartzeko prest legokeela zioetan gazte batek han”, dio.

2011. urtean zapaldu zuen lehenengoz Tindouf eskualdea Gurrutxagak. Bere arrebetako batek hainbat udatan ekarriak zituen familia bereko ume sahararrak Euskal

Herrira, *Oporrak Bakean* programaren barruan, eta haietako gazteena azkenekoz etorri zenean sortu zitzaion berari hara joateko aukera [Ordutik beste birritan izan da han]. Ordurako bazuen sahararren errealitate gordinaren berri, baina hara egindako estrai-neko bidaiak hark barrua astindu ziola aitortu du. “Flash bat izan zen ikustea zein gauza gutxirekin bizi diren han eta zenbat alferreko gauza ditugun guk hemen. Adreiluzko edo adobezko



Nazioarteko laguntza biltzeko duten biltegiako bat.

etxeak, haimak... zein gauza gutxi eta zenbat hondar. Gaeuz iritsi ginen, ilargi betearekin, eta Marte ematen zuen hark: dena lehor, dena hare”.

Hala, errefuxiantuentzako kanpamentuetatik bueltan, zerbaitegin beharra sentitu zuen. Giza eskubiderik oinarritzkoenak ukatuak zitzaizkion herri hari nola edo hala lagundu nahi horretan, Elgoibarren janaria biltzeko kanpaina martxan jartzea adostu zuten Elgoibarren bizi duen arrebak eta biek, eta hasi ere egin ziren. “Eroskira joan ginen kanpainaren berri ematera, eta ordurako Eibar-Saharakoak eskean paseak zirela erantzun zidaten. Halaxe, Eibar-Saharakoekin jarri nintzen harremanetan, eta ordutik, hor dihardut; taldeko beste boluntario bat naiz ni”.

Hamar egun egin berri ditu errefuxiantuentzako kanpamentue-

Urteetako gurutzbidea

Kolonia espainiarra izan zen Mendebaldeko Sahara, baina duela 41 urtetik Marokok okupatua du [1975eko azaroaren 6an okupatu zuen Martxa Berdearen bidez]. NBE Nazio Batuen Erakundeak ez du onartzen okupazioa, baina behin betiko estatusaren inguruko erreferenduma behin eta berriro atzeratu da.

◆ **1957:** Espainiak bere probintzia izendatu zuen Mendebaldeko Sahara. Marokok beretzat nahi zuen eta gerra hasi zuten. Urtebete iraun zuen gerrak. Garai hartan hasi ziren sahararrak autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen ere.

◆ **1965:** Espainiari deskolonizatzeke agindu zion NBEk.

◆ **1969:** Saharako Askapen Mugimendu Nazionala eratu zuten 1969an, eta gero, 1973an, Fronte Polisarioak hartu zuen lekukoa.

◆ **1975.** Azaroaren 2an, erreferenduma egingo zela agindu zuen Madrilak, baina Maroko hasita zegoen ordurako erreferenduma geldiarazteko eginahalak egiten, Estatu Batuen babesean eta Saudi Arabiaren laguntzarekin. Fronte Polisarioak, bestalde, Aljeriaren eta Libiaren babesa lortu zuen.

1975eko azaroaren 6an Hassam II. Marokoko erregeak 350.000 zibilez eta 25.000 militarrez osatutako martxa bidali zuen Mendebaldeko Sahara okupatzera. Hagako Nazioarteko Zigor Auzitegiak sahararrei autodeterminazio eskubidea aitortu zien egun berean iragarri zuen martxa Hassam II.ak. Lurraldea okupatu ostean, milaka militar sartu ziren Mendebaldeko Saharara, eta jazarpena hasi zuten. Sahararrak Aljerian babestu ziren, basamortuan, eta militarrek airez bonbardatu zituzten.

◆ **1975eko azaroaren 14a.** Madrilgo akordioak sinatu zituzten Espainiak, Marokok eta Mauritaniak. Deskolonizazio prozesuaren aldeko ebazpenen kontra egin eta kolonia bi herrialdeen artean banatu zuten: Iparraldea Marokorentzat (200.000 kilometro koadro) eta hegoaldea Mauritaniarentzat (70.000 kilometro koadro). Trukean, fosfata eta arrantza ustiatzeko akordioak lortu zituen Espainiak.

◆ **1976ko otsailaren 27a.** Espainiak Mendebaldeko Saharatik azken soldaduak erretiratu bezperan aldarrikatu zuen Fronte Polisarioak SEAD Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Aljeriaren laguntzarekin. Eta gerra deklaratu zioten Marokori. Marokok harremanak eten zituen Aljeriarekin, sahararrei babesa agertzeagatik. El-Uali Mustafa Saied izan zen lehen presidentea, Fronte Polisarioko sortzailea, baina handik hilabetera bonbaz hil zuten eta Mohamed

tan, arrebarena etorri izan ziren umeen etxean, eta lehendik ere bazekiena berretsi du: sahararrek nazioartean laguntza behar dutela aurrera egiteko, baina hemendik hara bidaltzen dugun jateko, arropa eta gainerako materialez gain, beste laguntza tipobat dela han desio dutena; lortzen zailagoa: Marokoren okupazioa amaitzeko beharrezkoa duten bultzada politikoa. Bitartean, baina, badaki Piztu Itxaropena moduko karabanak ezinbestekoak direla, batetik oinarri-oinarrizko premiak ere ase gabe dituztelako gaur-gaurkoz sahararrek, eta bestetik, halako elkartasun kanpainek balio dutelako, zuzenean nahiz zeharka, sahararrek bizi duten urteetako kalbarioaz ohartarazteko. “Hondar ale bat izan arren guk jartzen duguna, behar-beharrezkoa da”.

Eta bi helburu horiekin ari dira Eibar-Sahara elkartasun taldean

Abdelazizek ordezkatu zuen. lazko maiatzean hil zen Abdelaziz, 68 urte zituela.

◆ **1976.** Gerra hasi zuten, hamasei urte iraungo zuen gerra. Milaka lagun hil ziren, batekoak zein bestekoak. Gerrillen gerran jardun zuen Polisarioak. Marokok, berriz, Estatu Batuen eta Frantziaren babesa izan zuen.

◆ **1979:** Mauritaniak bakea sinatu zuen Fronte Polisarioarekin, eta, Marokok bereganatu zuen Mauritaniaren esku zegoen hegoaldeko lurraldea.

◆ **1980:** Aurkaria nagusitzen ari zitzaiola ikusita, *Lotsaren horma* izenez ezagutzen den harresia eraikitzen hasi zen Maroko, defentsarako.

Zazpi urtean eraiki zuten. 2.700 kilometroko harresia da eta bitan zatitzen du herrialdea. Inguruan milaka mina ditu. Marokok lurraldearen %80 kontrolatzea lortu zuen, harresiaren iparraldera dagoena.

◆ **1991.** Marokok eta Fronte Polisarioak su-etena sinatu zuten irailaren 6an. Minurso eratu zuten erreferenduma antolatzeke, eta data ere zehaztu zuten. 74.000 saharar zeuden eroldan. Marokok, baina, etengabe atzeratu zuen, galdeketa eroldaren aitzakiaz eta geroztik milaka kolono bidali ditu Mendebaldeko Saharara.

◆ **2005.** Intifada hasi zuten Aaiunen. Milaka lagun atera ziren kalera, militarrei aurre eginez. Jazarpena gogortu zuten militarrek.

◆ **2007.** Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko zuzeneko negoziazioak hasi zituzten New Yorken. Fronte Polisarioak autodeterminazio eskubidea eskatzen zuen, baina Marokok, autonomia bakarrik onartzen zien sahararrei eta bertan behera gelditu ziren negoziazioak. 2008an berriz saiatu ziren, baina emaitza ustela izan zen berriz.

◆ **2009.** Nazio Batuen Erakundeak negoziazioei heltzeko eskatu zien berriro bi aldeei.

◆ **2010.** Marokoko militarrek Aaiun hiriaren kanpoko aldean bat-batean protestarako sortutako Agdayn Izik kanpamenduan sartu ziren indarrez. NBERen Batzar Orokorak gogor salatu zuen.

◆ **2017.** Fronte Polisarioak erreferendumerako data ezartzeko eskatu dio NBERi behin eta berriro. Saharar herriak zatituta jarraitzen du, autodeterminazioaren zain. Errefuxiatuen kanpamentuetan oinarri-oinarrizko elikagai eta materialak falta dituzte, eta Marokok okupatutako Saharan, erasoak, atxiloketak, bahiketak, torturak... eguneroko ogia dira.

*Iturriak: <http://www.delsah.polisario.es> eta Berria

*Buruko gaixotasunak
dituztenentzako eguneko
zentro bat Aaiunen.*

ere, eginahalak egiten (Facebooken duten orrialdearen bidez jarri daiteke haiekin harremanetan).

Otsailaren 27an irtengo da karabana hori Euskal Herritik Tindoufera (Aljeria). Hamahirugarren karabana izango da, eta ehunka boluntario ari dira Euskal Herri osoan lanean. Euskadi-Sahara Koordinakundea, Saharar Ilargi Gorria eta Fronte Polisarioak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian duen Ordezkaritza dira karabana horren sustatzaileak, eta Euskal Herrian han-hemen sortu diren elkartasun taldeetako boluntarioek eusten diote ekimenari. Haiek dira supermerkatuekin harremanetan jarri eta bildutakoa sailkatu eta bidaltzeko prestatzen dutenak.

Elgoibarko eta Mendaroko kasuan, Eibar-Saharako boluntarioek betetzen dute egiteko hori. Elgoibarren, bi Eroskietan eta BM supermerkatuan jarri dituzte otarrak janaria eta konpresak batzeko, eta Mendaron, Coviranen eta Puxikan, eta hil hau bukatutakoan, batutako guztia batu, kaxetan sailkatu eta bidali egingo dute, gero han, errefuxiatuen kanpamentutan, Saharar Ilargi Gorrikoek bana dezaten. Arroza, pasta, lekaleak, azukrea, atun eta sardina latak, olioak eta konpresak eskatu dituzte. Laz, 240 tona batu zuten. Bildutako guztia hara bidaltzeko bigarren eskuko kamioiak erostea ere aurreikusi dute, eta horretarako erakunde publikoek –bereziki udalek– emandako dirua erabiliko dute. Hala ere, kontu korrante bat ere zabaldu dute kanpainaren sustatzaileek, diruz lagundu nahi dutenek euren ekarpena egin dezaten: 3035 0080 94 0800054177 (Laboral Kutxa)

EKINTZA OSAGARRIAK

Urteko ekintza esanguratsuena izan ohi da hau, baina ez da horretara mugatzen Eibar-Sahara elkartekoen lana. Bigarren eskuko liburu azoka ere urtero antolatzen dute Eibarren (urtean hiru aldiz), eta batutako diruarekin errefuxiatuen kanpamentuetako eguneko zentroetan batzen diren ezindu psikikoen gosaria bermatzen dute. Bost kanpamentu daude Aljerian (Aiaun, Auserd, Bojadar, Smara eta Dajla eta guztira 200.000 lagun inguru bizi dira haietan), eta eguneko zentro bana dago haietan. Gosaritarakoa hemen erosten dute boluntarioek, eta Afal Sahararen aldeko elkarre getxoxtarraren bidez bidaltzen dute gero hara. Era berean, *Oporrak Bakean* programa ere laguntzen du Eibar-Sahara elkarteak. Helburu argia du programa horrek: Bi hilabetez bada ere, 10 eta 12 urte bitarteko haurrak saharar errefuxiatu kanpalekueetatik ateratzea, eta bide batez, desertuan udako bi hilabete horietan sufritzen duten tenperatura altuetatik babestea.

Eta bi ekimen nagusi horiez gain, kamisetak saltzen, instituzioetan laguntza eskatzen... ere jardun dute. Baita kanpamentuetan duela asko ez zela izan ziren uholdeetan kaltetutakoentzat materiala biltzen ere. Hango gobernua haima bat eman ohi dio familia bakoitzari zortzi urtean behin, baina hondamendi naturalak izan direnetan, familiek eurek konpondu behar izan dituzte, ahal izan duten modura.



ELKARTASUNA ERE, APALTZEN

Euskal Herritarren eta oro har nazioartearen elkartasuna handia dela nabarmendu du Gurrutxagak, baina hala ere, garai batetik hona asko apaldu dela ohartarazi du. "Kanpalekueetarako bidea ere Bilbobus zahar batean egin genuen eta gertatu izan zait kanpamentuetan bertan Ertzaintzaren auto batekin gurutzatzea. Espainiako Gobernuak berak bidalitako dilista-zakuak ere ikusi ditugu biltegietan, baina hori bai, hori garbi dago aurpegi garbitze bat dela, ez dugulako ahaztu behar sahararrek bizi duten egoera gordinaren erantzule dela Espainia. Asko da elkartasunez hara bidaltzen duguna, baina egia da azkeneko urteetan laguntza hori ere txikitu dela, krisiaren eraginez-edo". Errefuxiatuen kanpamentuetan egin dituen hamar egunetan argi ikusi du. "Inoiz bi hegazkin ere irten izan dira Bilbotik Tindoufera, baina aurrean, Madrildik joan gara, eta hegazkina Andaluziako boluntarioekin osatu dugu". Aurrekoetan moduan eraman zezaketen dena eraman dute, eta eurek arduratu dira banatzeaz. Iloba Saharautz elkarte boluntarioa du Gurrutxagak eta elkarre horrek gerran mutilatutakoei laguntzen egiten duenez lan bereziki, haietazko izan da laguntzaren parte bat. Aipatu du boligrafoa eskuan hartuta ibili direla hamar egunetan, ikusten zituzten beharrak zerrendatzen, "hurrengo elkartasun bidaia prestatzeko".

Biltegiak bisitatu dituzte, eta baita Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin Aaiunen berritzen ari diren ospitala ere. "Anekdotak bat: Berritze lanak Nafarroako Gobernuaren diru laguntzarekin egiten ari direla adierazten duen kartel zaharra gaztelania hutsean zegoen, baina orain berri bat jarri dute ondoan, elebizi: euskaraz eta gaztelaniaz". Oxfam gobernu kanpoko erakundeak kanpalekueetan jarri dituen hozkailu handiak ere ikusi dituzte, eta jabetu dira zein beharrezko diren halako ekimenak, elikagai freskoen behar handia dutelako sahararrek, bizi-itxaropena luzatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko. Eta ikusitakoak ikusita, indartuta etorri dira sahararren alde egiten eta eragiten jarraitzeko. Izan ere, ematera joan dira, baina sahararrendik jaso dutena gehiago izan dela nabarmendu dute, "askoz gehiago".

Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida

fisio&más
 Fisioterapia aurreratua eta
 Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
 943 740 191 / 607 963 628
 www.fisio-mas.com

RPS 17/12

Mari Jose Ruiz Porres



Doktorea
GINEKOLOGOA

R.P.S. 82/15
 Madina Radiologia
 Toribio Etxeberria 4, I - Eibar
 Tel.: 943 202 857
 mj.ruizporres@gmail.com

RPS 271/12



ainhoa
 fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
 Elgoibar
 943 531 953
 669 565 745



leku edero
 hortz klinika

RPS 171/12
 Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5
 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07
 San Bartolome, 10
 Tel.: 943 743 734

aldaz
 hortz klinikak

RPS233/13
 Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
 20870 Elgoibar

RPS 183/12

Uzuri
 optika audio

Elgoibar
 Tel.: 943 740 359

Deba
 Tel.: 943 192 192

Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
 Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Asteleheneik ostiratera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larrietatik: 11:00 - 13:00

(espaindegi) zeharritza daukagu.
 Deitu ordua hartzeko.

HO E I **EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**

Jardiñeta, 3
 20600 Eibar

MATRIKULA LIBREA
Otsailaren 1etik 15era

ALEMANA, EUSKARA,
 FRANTSESA eta INGELESA

MATRIKULA EGITEKO:
www.eoieibarheo.hezkuntza.net

ARGIBIDE GEHIAGO: eoieibarheo@gmail.com
 943.20.06.18

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

barrena 11, EIBAR

garajesGarcía.com

Marka guztietako gurpiletan deskontuak!




www.garajesgarcia.com
g.garcia@garajesgarcia.com

Abuztuak: 943 820 697
 Kontagiz: 943 202 214
 943 127 271



3.000 €

RENAULT LAGUNA GRAND TOUR 1.8
 Motorra: 1.8 cm3 16V Gasolina
 Km: 90.000
 Egerra: erablia



14.000 €

VW GOLF 1.6 TDI CR BM BUSINESS
 Motorra: 1.6 cm3 TDI Diesel
 Km: 90.000
 Egerra: erablia



14.000 €

TOYOTA AVENSIS 2.0 D4D ADVANCE
 Motorra: 2.0 cm3 D4D Diesel
 Km: 100.000
 Egerra: erablia



22.600 €

HONDA CRV ELEGANCE 2.2 iDTEC
 Motorra: 2.2 cm3 I-CTDI Diesel
 Km: 100.000
 Egerra: erablia



12.000 €

HONDA CR-V 2.2 iDTEC COMFORT
 Motorra: 2.2 cm3 iDTEC Diesel
 Km: 220.000
 Egerra: erablia



13.000 €

FORD GRAND C-MAX 2.0 TDCI TITANIUM
 Motorra: 2.0 cm3 iDTEC Diesel
 Km: 80000
 Egerra: erablia

Prezio guzti hauek finantzazirik daude.




Punta-puntako krosa

Antxitxika egiteko giro aparta egin zuen aurreko domekan, eta Mintxetara hurbildu ziren ikusleek ere ez zuten eguraldiaren trabarik izan goi mailako atletismo jardunaldia jarraitzeko. Joshua Cheptegei (Uganda, 1996) eta Senberi Teferi (Etiopia, 1995) gailendu ziren Juan Mugertza Nazioarteko Krosean. Iazko irabazle Aweke Ayalew eta Conseslus Kipruto txapeldun olinpikoa baino azkarragoa izan zen Cheptegei gizonezkoetan. Teferik, berriz, Ruth Jebet txapeldun olinpikoari aurrea hartu zion. Antolatzaileak pozik daude aurtengo krosak eman duenarekin eta dagoeneko hasi dira hurrengo urtekoa prestatzen, 75. edizioa izango baita. Argazki gehiago ikusteko: www.barren.eus

- ASIER ORBEA -





Herriko Antzokiko kultur eskaintza ona edo oso ona dela uste dute erabiltzaileen %99k



Elgoibarko Udalak Herriko Antzokiaren erabilera eta erabiltzaileen iritzia ezagutzeko ikerketa egin du, eta erabiltzaileen %99k Herriko Antzokiko kultur eskaintza ona edo oso ona dela uste dute. 15 urtetik gorako 384 elgoibartarrei egin diete inkesta, telefono bidez, modu aleatorio eta anonimoan. Datu esanguratsuenen berri eman dute Udaleko arduradunek, eta horren arabera, programazioak balorazio oso ona jaso du. %54ak programatutakoa eta ikuskizunen maiztasuna gustuko dituztela adierazi dute, eta eskaintzen diren filmak nahiko berriak edota estreinatu eta gutxira ematen direla uste dute. Eskaintzen dituzten jardueren artean zinema da erabiltzaileen gogokoena, jarraian antzerkia eta ondoren, musika.

Eskuratutako datuekin ekintza eta programazio egokienak antolatzen ahaleginduko dira arduradunak, eta dagoeneko hartu dituzte neurri batzuk: Batetik, astelehenetako 21:30eko zine emanaldia ikuslearen eguna izango da aurrerantzean, eta lau euroan jarriko dituzte sarrerak. Era berean, zinema eta ikuskizun eszenikoen bonoak sustatuko dituzte. Azkenik, Herriko Antzokiko urte osoko ikuskizun eszeniko eta kontzertuen programazioa biltzen dituen agenda argitaratu eta banatu dute etxeetan.

Oroigarriak banatu zituzten zapatuan, zigilu erakusketan

Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak zapatuan banatu zituen aurtengo oroigarriak. C.D. Elgoibarren mendeurrenari eskaini diote aurten erakusketa, eta Antton Irazo klubeko presidentek jaso zuen oroigarria. Bildumagileei eta udaleko ordezkarierei ere eman zizkieten eskerrak filatelia elkarteko kideek. Era berean, C.D. Elgoibarrek ere mendeurrenako oroigarria eman zion filatelia elkarteari.



Amoranteren kontzertua gaur, Herriko Antzokian

Iban Urizar elgoibartarrak kontzertua eskainiko du gaur Herriko Antzokian, Amorante izen artistikopean. Musika esperimentalta eta kantu tradizionala uztartzen ditu bakarkako proiektu honetan, eta esperimentazioaren eta inprobisazioaren bidea lantzen ditu. 20:30ean hasiko da emanaldia, eta sarrerak 5 euro balio ditu.

Santa eskeko Etxegiña taldearen entseguak datorren astean

Etxegiña taldekoak otsailaren 4an irtingo dira Elgoibarko kale eta auzoetan santa eskean, eta horretarako entseguak egingo dituzte datorren astean. Urtarrilaren 31n eta otsailaren 2an batuko dira Kultur Etxeko sotoan, 20:00etatik 21:00etara.

Egur arte tailerrak zeramika eta grabatu ikastaroak antolatu ditu


Egur arte tailerrak hainbat ikastaro antolatu ditu: Batetik, zeramika ikastaroa eskainiko dute: umeentzako 20 ordukoa eta helduentzako 30 ordukoa. Eskolak asteazken arratsaldetan emango dituzte. Bestetik, akuaforte grabatu ikastaroa eskainiko dute, Pedro Azpiazu grabadorearen laguntzarekin. Ikastarotik izena emateko azken eguna otsailaren 3a izango da. Informazio gehiagorako ondorengo zenbakira deitu: 666 557 538

Espinal eta Zezeaga nagusi San Anton Pilota Txapelketan



San Anton Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten barixakuan Ikastolako frontoian. Promesetan Agirreamalloak eta Ibarlozak osatutako bikoteak Elolaren eta Garmendiaren aurka jokatu zuten, eta partida lehiatua eskaini zuten. Azken sei tantoak jarraian egin ostean, Agirreamalloa eta Ibarloza Markinako bikoteak 22-14 irabazi zuen partida. Aimar Ibarloza atzelaria aukeratu zuten finaleko pilotaririk onena. Senior mailako finalean ez zen lehenengo partidaren adinako parekotasunik egon eta nagusi izan ziren Espinal eta Zezeaga. 13 tantoan laga zituzten Salaberria eta Aranguena. Jose Mari Zezeaga pilotari profesional ohiaren seme Josuri eman zioten finaleko pilotaririk onenaren saria.

Edu Uribek lortu du 131 km-ko The Spine Race proba amaitzea, hirugarren saiakeran



Edu Uribek 2014an eta 2016an lortu ezin izan zuena lortu du hirugarren saiakeran, Britania Handiko The Spine Race 431 kilometroko mendi lasterketa amaitzea. Manchester hiritik 30 kilometrora dagoen Edale herrian hasi zen probaren bosgarren edizioa, urtarilaren 15ean. Irteera hartu zuten 114 lagunetatik 63 iritsi ziren Eskoziako Kirk Yetholm herrian zegoen helmugaraino, tartean Edu Uribe. Sailkapeneko 16. postuan ailegatu zen elgoibartarra, 159 ordu eta 16 minutuko denbora eginda. Kalkulatu du zazpi egunetan 30 ordu inguru egingo zituela lo.

Emaitzak

FUTBOLA

Mondragon 1 – Haundi 1 (Oho. Erreg.)
Ordizia 5 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
Zestoa 1 – Elgoibar 1 (Oho. jub.)
Elgoibar 2 – Sorraluze 1 (Jub.)
Elgoibar 3 – Arrasate 2 (Oho. kad.)
Elgoibar 1 – Orereta Kafea 1 (Inf.)
Vasconia 2 – Elgoibar 4 (Inf. Txiki)

ESKU PILOTA

San Anton Txapelketako finalak
Agirreamalloa/Ibarloza 22 – Elola/Garmendia 14
Espinal/Zezeaga 22 – Salaberria/Aranguena 13

ESKUBALOIA

Alcorta F.G. 23 – Barakaldo 18 (Senior giz.)
Salento 26 – Urola 22 (Senior giz.)
Zuazo 22 – Lauko 28 (Sen. emak.)
Aloña 28 – Deca 22 (Jub. mut.)
Aiala 21 – Tecnifuelle 11 (Jub. nesk.)
Aiala 28 – C. Astigarraga 23 (Kad. nesk.)
Beristain Banaketak 19 – G.C.Zarautz 20 (Jub. mt.)
Urkunde 21 – G.C. Zarautz 30 (Kad. mut.)
Egia 31 – Bankoa 27 (Kad. mut.)
Dario 36 – Urnieta 20 (Kad. nesk.)
Cometel 20 – Ordizia 16 (Kad. nesk.)
Amenabar 22 – Murgil 32 (Inf. mut.)
Hotel Txarriduna 22 – Zarautz 25 (Inf. mut.)
Bacalaos Alcorta 17 – Legazpi 16 (Inf. nesk.)
Eibar B 14 – Pneumax 25 (Inf. nesk.)
Ereintza 20 – Modeltek 13 (Inf. nesk.)

Agenda

ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 29
12:30 Concepto Egile – C.D. Internacional

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 28
11:00 Elgoibar – Oiartzun (Inf Txiki)
16:30 Haundi – Aretxabaleta (Oho. erreg.)
18:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Oho. Jub.)
Domeka, 29
16:00 Elgoibar – Oiartzun (1. erreg.)

ESKUBALOIA

(Olaizaga kiroldegian)

Zapatua, 28
10:00 Modeltek – Udarregi B (Inf. nesk.)
11:15 Murgil – Bergara (Inf. mut.)
17:30 Tecnifuelle – Zuazo (Jub.nesk.)
19:30 Lauko – Jarrilleras (Senior emak.)
Domeka, 29
10:00 Sanlo – Pulpo (Ale nesk.)
11:15 Bacalaos – Leizaran (Inf nesk.)
12:30 Cometel – Leizaran (Kad. nesk.)

(IMH kiroldegian)

Zapatua, 28
16:00 Astigarraga – Zuazo (Kad. nesk.)

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia eta erreferentziak ditut. ☎

631 785 554

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Interna egoteko prest.

☎ 604 164 719

Etxeak eta portalak garbituko nituzke. Elgoibartarra eta euskalduna naiz.

☎ 649 782 967

Nagusiak edota umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka lan egiteko prest. Esperientzia eta gidabaimenarekin.

☎ 616 348 918

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka ere bai. Esperientzia handia eta formakuntza ditut.

☎ 602 161 496

Etxeko lanak egiteko edo adinekoak nahiz umeak zaintzeko prest nago. Sukalde laguntzaile gisa ere lan egingo nuke.

☎ 602 047 812

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka ere bai.

☎ 600 319 516

Asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago. ☎

651 156 456

Orduka lan egiteko prest nago: garbiketa lanetan nahiz adinekoak zaintzen.

☎ 602 490 595

Nagusiak edo umeak zaintzeko prest nago.

☎ 631 185 896

Etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna moduan.

☎ 631 552 986

Matematikako klase partikularrak ematen dizkiet DBH, Batxilergo edota uni-

bertsitateko ikasleei. Matematikan lizentziatua. ☎

667 625 233

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. Interna ere bai.

☎ 602 193 095/612 216 458

Pertsona nagusiak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia dut. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago.

☎ 686 077 316

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke, asteburuetan.

☎ 651 156 456

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

☎ 681 065 683

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat.

☎ 635 005 536

Informatika eskolak ematen ditut.

☎ 680 944 294

Eskaintzak

Asteburuetan lan egiteko pizza banatzailea behar da. Motorrerako gidabaimena beharrezkoa.

☎ 943 740 196

ETXEBIZITZAK.....

Alokairua

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Bi edo hiru logelakoa.

☎ 602 490 595

Etxe polita alokatzen da Mendaron. Erdigunean, udaletxe alboan. Hiru logela, bi komun, berogailu zentrala...

☎ 660 042 159 (arratsaldean deitu)

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 688 723 121

BESTELAKOAK.....

Goiko Errota elkarteak bazkide berriak behar ditu.

☎ 626 797 027 (Julen)

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€ . Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 beheka - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Jakin nahiko nuke irteera portalera beharrean zuzenean kalera daukan lokal komertzialaren jabea derrigortuta dagoen portalean egin behar diren berritze lanak ordaintzera, komunitate horretako kide baldin bada.

Zalantzarik ez dago obra hori egitea behar beharrezkoa dela eraikinaren bizigarritasunerako. Beraz, eraikina barrutik berritzeko obra guztiak, izan barrualdea oso-osoan berritzekoak edota elementu jakin bat berritzekoak, jabeak guztiak ordaindu behar dituzte, baita portalera sarrerarik ez daukan lokal jabe horrek ere.

Jabekide guztien betebeharen artean jasota dago betebehari ere: eraikina eta bere zerbitzuak ondo mantentzeko beharrezkoak diren gastuei eta banatu ezin daitezkeen karga eta ardura guztiei partaide-kuotaren arabera erantzutea. Legeak dio etxebizitza edo lokal bakoitzari partaide-kuota jakin bat dagokiola, eta horren arabera zehaztuko dela bakoitzak dirutan zenbat jarri behar duen.

Beraz, arau orokorrak dio eraikinean egingo diren ezohiko konponketak, tartean berritze lanak, jabekide guztien artean ordaindu beharko direla.

AHOLKUA: Gastu bat indibidualizatzekoa izan dadin (denek ordaindu beharrik izan ez dezaten) ezinbestekoa da Eratze Agirian edota jabekide guztiek onartutako estatutuetan hala jasota egotea.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Ga-razi**, ostegunean 6 urte bete zenuelako. Familia osoaren partez, muxuak.



Zorionak, **Bittor**, Hurrengo asteazkenean 4 urtel Muxu asko amamaren eta gurasoen partez.



Zorionak, **Egoi**, gaur 6 urte bete dituzulako. Primeran ospatu zure eguna eta patxo handi bat familia osoaren partez.



Zorionak, **Ian**, hilaren 29an 6 urte egingo dituzulako. Muxu bat familiakoen, eta bereziki lehengusu eta anaien partez.



Orain dela 7 urte gure bizitzako opari politena jaiotzen. Zorionak, **maitia**. Ondo pasat! Familia-koen partez.



Zorionak, **Josu**, gaur 2 urte egin dituzulako eta etxeko erregea bihurtu zarelako. Etxekoen partez.



Zorionak, **Mar-ke**, hilak 30ean, 8 urte beteko dituzulako. Muxu bat etxekoen eta, bereziki, Nora eta Rokeren partez.




Zorionak, **Elur**, 9 urte bete dituzulako. Muxu bat familia osoaren partez.



Sei urte handi gure **Laiak!** Ze azkar pasa diren... Zorionak etxeko guztien eta bereziki, Eneko-ren partetik.



Zorionak gure korrikalariari! Iritsi da eguna! Ondo ospatu eta segi horren irrifartsu! Mila kilo muxu etxeko guztien partez.



Zorionak, **Laia**, domekan 5 urte egingo dituzulako! lada esku bete! Muxu asko etxeko printzesari.



Zorionak, **Xuhar!** 2 urte txo jada! Muxu asko guraso, aittita-amama eta osaba Imanolen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.

Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.

Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

SALENTO BAR PIZZERIA

BUON APPETITO

Pedro Nigal Urruzuno, 10 - 20870 Elgoibar
salento_elgoibar@hotmail.com
Facebook/Salento de Carlo

BERRIA!
Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar

BANAKETAREN ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostegunera:
20:00etatik 23:00etara
Ostiral eta larunbatak:
20:00etatik 23:30era
Igandetan:
13:00etatik 16:00etara
20:00etatik 23:00etara

GURE ESKAINTZATIK NAHI DUZUNA ESKATU ETA ETXERA ERAMANGO DIZUGU.

943 740 196  salento de carlo

Eguneko menua: astelehenetik ostiralera

B. Sarasketa, 1 ac 943 12 82 31

Kafea, opilak, ogia, pintxoak, ardoak...

Gozatu **EIBARKO PREZIORIK ONENAKIN!**

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTLONDO

LABADEROKUA Egutero 06.00etatik aurrera

BASIC 197€
BETAURREKO PROGRESIBOAK

Uzuri optika audio
ELGOIBAR - DEBA

Konkultu liburu konpainaren esaniz: Elgoibarko optika eskaintza bitarteko eragile.

27 BARIXAKUA

18:30 Odol ateratzeak. Odol emaitzek anbulategiko alboan duten lokalean.

27 BARIXAKUA

20:30 Kontzertua. Amorante. Herriko Antzokian.

29 DOMEKA

9:20 Mendi irteera. Mendarotik Gaintxipixara. Morkaikok antolatuta. Trenzango dira, Mendarora. Tren geltokian bilduko dira.

31 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra. Luis Antonio de Villenaren *El burdel de Lord Byron* liburua aztertuko dute Consuelo Carrererekin. Haizeak antolatuta, Udal Liburutegian.

3 BARIXAKUA

15:15 Santa Agedaren omenezko kalejira. Elgoibar Ikastolak antolatuta. (Euria egingo balu, Ikastolan bertan).

18:00 Ingeleseko mintzapraktika taldearen solasaldia. Udal Liburutegian.

21:30 Zine foruma. *Shirley Valentine* filma aztertuko dute Kultur Etxean. Haizeak antolatuta. Kafea hartuko dute lehenengo eta 22:00etan hasiko da filma.




Edurne Zulaika Osa

2017ko urtarrilaren 22an hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Txomin Iribarren Zubiaurre

2017ko urtarrilaren 19an hil zen, 79 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R D I A K	09:00 - 22:00	20:00 - 22:00	- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142
	27 Barixakua IBAÑEZ*	* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:	
	28 Zapatua GARITAONANDIA	BARRENETXEA (Elgoibar)	- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638
	29 Domeka GARITAONANDIA	Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277	
	30 Astelehena ETXEBERRIA	22:00 - 09:00	
	31 Martitzena FERNANDEZ*	MANDIOLA (Eibar)	- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384
	1 Eguaztena YUDEGO	San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533	
	2 Eguena ORUESAGASTI *		
	3 Barixakua BARRENETXEA		

'El faro de las orcas'

28 zapatua: 19:00 / 22:15
29 domeka: 19:00
30 astelehena: 21:30



'Vaiana'

29 domeka: 16:30



'Bar Bahar'

2 eguena: 21:30

*Juan Jose Mendikute Zabala*

2017ko urtarrilaren 20an hil zen, 59 urte zituela.
Mendikute sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



VI. URTEURRENA

Fernando Azpiazu Uribetxeberria

2011ko urtarrilaren 30ean hil zen.

Beti izango zaitugu gogoan.

Etxekoak





Migel Galdos Osa

"Txartxa"

2016ko abenduaren 26an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Bat-batian juan zera,
agur esateko astirik gabe,
orain hor zaude zure semiekin, eta ama
hemen dago alabak eta ilobarekin.
Maite zaitugu.**



I. URTEURRENA

Garbiñe del Hoyo Murua

2016ko urtarrilaren 28an hil zen, 48 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
urtarrilak 28, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome
Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.**

Zure familia



III. URTEURRENA

Luis Izagirre Arrizabalaga

"Lizundia"

2014ko urtarrilaren 29an hil zen, 69 urte zituela.
Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, domekan,
urtarrilak 29, goizeko 11:30ean Elgoibarko Bartolome
Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.**

Etxekoak



ELGOIBAR-ARREITURRE INSTITUTUA

2017-2018

Zatoz!

DBHko aurrematrikula epea zabalik
urtarrilaren 30etik otsailaren 10era.

Gurasoentzako bilera irekia ARREITURREko liburutegian
otsailaren 1ean, 18:30ean.



Elgoibar Arreiturre BHI

San Roke, 11
Tel.: 943 748 397
E-posta: www.elgoibarhi.eus



elgoibarko
herri eskola

Kalamua, 8
Tel.: 943 740 879
E-posta: 012777a@hezkuntza.net



IKASTOLA EREDUA

www.elgoibarikastola.eus

HEZKUNTZA ERALDATZEN



Aurkezpen
bilera
urtarrilaren
30ean
18:00etan

Aurre-matrikulazioa:
urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era

elgoibar@elgoibarikastola.eus
943 74 44 41

elgoibar ikastola



ikastolenelkartea